


bizitzeko tokiak, **pertsonentzako** tokiak.



Gehiago jakiteko

Natura 2000 Sarea Euskadin dagoen biodibertsitatearen galera ekiditeko proiektu nagusia da, eta oraindik eraikitze-lanetan dagoen talde-erronka.



natura
2000



Natura 2000 biodibertsitatearen galera ekiditeko Euskadin dagoen proiektu nagusia da, gure ondorengoei bizi-kalitate hobea ahalbidetzea helburu duena.

Basa-landare eta animaliak babesteko, bizitzeko behar dituzten tokiak eta baldintzak babestu beharra dago; hau da, haien habitata babestea beharrezkoa da. Hori dela eta, flora, fauna eta ekosistemak babesteko tokiak hautatu dira. Toki horiek osatzen dute Natura 2000 Sarea.

Hautaketa egiteko kontuan hartu dira habitat motak, Europar Batasunean distribuzio naturala oso murrizta dutenak edota beraien jatorrizko eremuen murriztapen nabaria jasan dutenak, baita gure nortasunaren parte direnak eta Euskadiko adierazgarrienak direnak ere. Are gehiago, kontuan hartu dira populazio beherakada jasaten ari diren animaliak eta landareak; beherakada hori sortzen ari diren arrazoiak zuzendu ezean desagertzeko arriskuan daudenak.

Natura 2000 Sarearen asmoa zera da, habitat natural hauen guztien eta bertako flora eta fauna basa-espezien lagin adierazgarria bildu, eta toki horietan epe luzerako biziraupena bermatzeko beharrezko neurriak hartzea. Euskadiko biodibertsitatearen galera ekiditeko eta gure ondorengoen ondarea eta bizi-kalitatea arriskuan ez jartzeko asmo handiko proiektua da.

57 lekuk osatzen dute Natura 2000 Sarea Euskadin, lurraldearen % 20 betetzen dutenak. Toki horietan hainbat ekosistema aurki ditzakegu: itsasoa, basoak, hezeguneak, aintzirak, sega-belardiak, mendi larreak, ibaiak, zohikaztegiak edo itsaslabarrak. Horixe da munduko natura babesteko euskal gizartearen pauso nagusia.

Natura 2000 eraikitze lanetan ari den talde-erronka da eta bertan euskal gizarteak parte hartze aktiboa du.

Natura 2000 Sarea oraindik amaitu gabe dagoen prozesua da. 1992an hasi zen, Europar Batasuneko hiritarrek Habitategi buruzko Zuzentaraua eta Europar Sare Ekologikoa, Natura 2000 Sarea deiturikoa, sortzea erabaki zutenean.

Europar Batasunak 1992ko Lurraren Goi-bilerari erantzun zion eta planetaren biodibertsitatea salbatzeko helburua bultzatu zuen.


Baina planetako biodibertsitatea babesteko, lehenengo eta behin, gure bizitza forma propioak babestu behar ditugu. Beraz, hurrengo pausoa, gure inbentario eta datuak hobetzea izan zen, Euskadiko toki garrantzitsuenak zientifikoki identifikatu eta ebaluatzeko, eta horrela Habitaten Zuzentzarauak jasotzen zuen habitat eta espezieak babesten laguntzeko. Europar Batasuneko herrialdeek, aditu eta zientifikoen aholkuei jarraituz, tokien hautaketa irizpide ekologikoen arabera soilik egitea erabaki zuten.

Hurrengo pausoa, Europar Komisioari Euskadiko tokien hautaketa bidaltzea izan zen, Natura 2000 Sarean sar zitzan. Zientzialari independenteek eta gobernuz kanpoko erakundeek informazioa aztertu eta egiaztatu zuten. Negoziazio prozesu luzearen ondoren, Euskaditik bidalitako proposamena onartu egin zen.

Hegaztien Zuzentzarauak ere badu, bere aldetik, mehatxupeko hegazti espezieak eta hegazti migratzaileak babesteko tokien hautapenerako eskumena. Babes hori, ez da bakarrik hegazti, arraultza eta habientzat, bizitzeko behar dituzten habitatentzat ere bada, bereziki hezeguneak babestuz. Hori horrela, Estatu Kideek Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak izendatzen dituzte (ZEPAK), zuzenean Natura 2000 Sarean sartzen direnak.

Atlantikoko eskualdeko eremuen zerrenda kolektiboa 2004ean onartu zen eta mediterraneo aldeko eremuaren zerrenda 2006an. Momentu horretatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak sei urteko epea du Euskadik Sarean dituen eremu guztien kudeaketarako tresnak progresiboki martxan jartzeko. Toki bakoitzean behar diren neurriak ezarri behar dituzte, hondamendia ekiditeko, eta habitat naturalak, landareak eta animaliak bizitzeko beharrezko baldintzak galdun diren lekuetan horiek berreskuratzeko.





Horixe izango da unea: 2010. urtea atlantiko aldeko tokientzat eta 2012. urtea mediterraneo aldeko tokientzat. Konexio handiaren momentua! Natura 2000 Sarearen erronka kolektiboa arrakastatsua izan dadin ez da nahikoa mapa batean toki batzuk seinlatu, kartelak jarri eta eta Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian argitaratzea. Toki bakoitzak bere kudeaketako tresna operatiboak izan behar ditu, bertan bizi diren pertsonen oniritzia jaso eta neurriak hartu behar dira; jarraipen programa batekin benetan aurreikusitako eta beharrezko emaitzak lortzen ari garela egiaztatu behar da.

Sarean sartzeko itsas eremuek denbora gehiago eskatuko dute, oraindik ez baitugu nahikoa informazio zientifiko tokiak modu egokian hautatzeko. Lan hori 2012 baino lehen amaitu behar da, eta urte berean, Europar Komisiorekin negoziazio prozesua hasiko da Euskadin Natura Sarearen itsas-tokien behin betiko hautaketa egiteko. Era honetan, lurzoruan erabilitako prozesu bera jarraituz, 2018rako tsas eremuek beren kudeaketarako tresnak edo dokumentuak izan beharko lituzkete.

Europako Ingurumen Agentziak dagoeneko ohartarazi digu 2010erako ez garela gai izango biodibertsitatearen gainbehera geldiarazteko, Europar Batasuneko estatu guztiak helburu hori lortzeko hitza eman genuen arren. Hori dela eta, erronkak aurrera darrai, baina ahalegin handiagoa egin beharko dugu, helburua gutxienez 2020rako lortzeko eta ordurako espezie guztiak egoera onean edo berreskuratzebidean egon daitezen.